



INICIATIVAS DE
COOPERACIÓN
Y DESARROLLO

CEA(R)
EUSKADI

Errefuxiatuen Laguntzarako
Batzordea Euskadin

CEAR-Euskadiren “Genero-
arrazoiengatiko jazarpena:
Jatorriko herrialdeei buruzko
informazioa, asilo-eskubidearen
esparruan”
proiektuaren
ebaluazioa



Laburpen Exekutiboa

Aurkibidea

Aurkezpena	3
1. kapitulua Ebaluazioaren ibilbidea	5
2. kapitulua Proiektuaren berriazko helburua, ebaluazioaren helburua eta SAGN ikuspegia	8
3. kapitulua Ebaluatu beharreko ekintzak	14
4. kapitulua 24 puntu etorkizunera begira	16

Iniciativas de Cooperación y Desarrollo aholkularitza-zerbitzu bat da, Esther Canarias Fernández-Cavadak eta Fernando Altamira Basterretxeak osatua, eta gizarte-arloan dihardu lanean. 2000. urteaz geroztik, erakundeak indartzeko prozesuak bideratzen ditu, prestakuntza eta aholkularitza emanez gai hauei buruz: ebaluazioa, sistematizazioa, plangintza estrategikoa, diagnosis, irakaspen estrategikoak sortzea, aholkularitza metodologikoak eta elkartean ongi bizitzea.

Partaidetza da lan horren zeharkako gakoa, giza garapen iraunkor, bidezko eta osoaren alde lanean diharduten pertsonak eta erakundeak indartzen laguntzeko.

***Gure lanari buruz gehiago jakin nahi izanez gero,
jo gure blogera, bideratu ditugun prozesuek jakitera eman nahi
dituzten esperientzietako batzuk aurkezten baititugu bertan:***

<http://iniciativasdecooperacionydesarrollo.wordpress.com/>

Aurkezpena

CEAR-Euskadik proiektu berri, ausart eta eder bat jarri du abian. LGTTBI pertsonen dagokienez eta genero-arrazoiengatik jazarpenaren arloan (GAJ) aurrera nola egin proposatu dute, gizarte-elkarteen arloko pertsonen eta biktimen¹ arteko elkarrizketari bide eman dion lan-metodologia baten bidez.

Proposamen horren harira, ezagutzak eta esperientziak eratu ditugu, eta denon artean ezagutza berriak sortu. Poliki-poliki, elkarrizketaren bidez, ekinez.

Proiektuak proposatzen dituen ekintzen artean dago ebaluazio-prozesua. Prozesu hori egin da, eta prozesuaren txostena aurkezten dizuegu hemen. Prozesuan zehar, Gizarte Eragin eta Partaidetzarako Taldean (GEP) zeuden ebaluazio-itxaropenak egin ditu CEAR-Euskadik. Horretaz gainera, inkestak kudeatu ditu. Bestalde, INCYDE, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo zerbitzuak prozesu osoa bideratu du, elkarrizketak eta eztabaida-taldea koordinatu ditu, eta dokumentu hau egin du.

Hortaz, dokumentu hau ebaluazio misto bat da, erakundearen eta aholkularitza-zerbitzuaren artekoa. Talde-lana egin dugu, landu beharreko edukiak bideratzeko eta jarraipen-prozesua egiteko. Azpimarratu beharra dago ebaluazio hau ekarpen handia dela CEAR-Euskadirentzat, bereziki, eta gizarte-elkarteentzat, oro har; izan ere, irizpide eta analisirako elementu jakin batzuk garatu ditugu, ebaluazioa SAGN ikuspegitik egiteko bide ematen dutenak.

¹ Proiektuan horrela agertzen delako erabili dugu termino hori. CEAR-Euskadik eta INCYDE, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo aholkularitza-zerbitzuak termino hori erabiltzen dugu, jakinik pertsona horiek ez direla kolektibo homogeen bat, ez eta pertsona pasiboak ere. Askotariko bizitza-historiak dituzten pertsonak dira, eta, askotan, aurre egiteko estrategia propioak egiten dituzte.

Txostena kapitulu hauetan dago antolatuta:

1. kapitulua: Zer ebaluazio-ibilbide egin dugun azalduko dugu.
2. kapitulua: Proiektuaren berariazko helburua aurkeztuko dugu, bai eta ebaluazioaren helburua ere. Garapenerako hezkuntzaren alderdien artean, lehenetsuna eman diogu generoen alderdiari (Sexu-aniztasuna eta genero-nortasuna —SAGN—); alderdi horretan bildu dugu arreta. Kapitulu horretan, CEAR-Euskadiren arabera SAGN zer den azalduko dugu.
3. kapitulua: Gogora ekarriko dugu zein diren ebaluatu diren proiektuaren ekintzak.
4. kapitulua: Etorkizunari begirako 24 puntuak aurkeztuko ditugu. Puntu horiek 5 bloketan antolatuta daude, eta hobetzeko ildoen proposamenak dira. Proposamen horiek oinarritzat dituzte ebaluazio-prozesuan parte hartu dutenen ekarpenak.

Prozesu hori ezingo zatekeen egin pertsona hauen partaidetzarik gabe: Alexandra Licona, Arantza Fernández Plaza, Eva Menéndez, Gema Fernández Rodríguez de Liévana, Gustave Kiansumba, Lala Mujika, Mónica Fernández, Nuria Díaz, Patricia Bárcena, Paloma Favieres eta Paula Castro. Mila esker eskainitako denboragatik, zuen ilusioagatik eta zuen hitz aberasgarriengatik.

Halaber, CEAR-Euskadik eta bere GEP taldeak beren jardunetatik ikasi nahi dute, eta beren lana jakitera eman, eta lan hau guztia nahi horri esker ere egin da, zalantzarik gabe.

Bestelako balizko mundu batzuk irudikatzen jarraitzeko nahiaren adierazgarri izango ahal dira orri hauek! Gozatuko ahal dituzue eta lana hobeto egiten lagunduko ahal dizuete!


Besarkada estu bat, eta osasuna.

Esther Canarias eta Fernando Altamira
INCYDE, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo

1

Ebaluazioaren ibilbidea

Txosten hau ebaluazio-prozesu misto baten emaitza da. CEAR-Euskadik eta INCYDE, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo aholkularitza-zerbitzuak dinamizatu eta egin dute ebaluazio-prozesu hori. Lan interesgarria izan da hau; izan ere, barruko ikuspegiak (erakundearenak) eta kanpoko ikuspegiak (aholkularitza-zerbitzuarenak) elkarren osagarri izan dira.



Ebaluazio-prozesu honetan egin dugun ibilbidea (ikus 1. irudia) malgua izan da, eta erakundearen eta proiektuaren premietara egokitua. Hasieran, ibilbide bat ezarri genuen; ibilbide hori prozesu osoaren ardatza izan da, eta ibilbide horri jarraitu diogu uneoro².

Ebaluazio-taldearekin egindako lantegi batzuen bidez, prozesu horri begira CEAR-Euskadik zer itxaropen zituen identifikatu zen, betiere garapenerako hezkuntzaren alderdia kontuan hartuta. Ebaluazioaren ardatza, hain zuzen, proiektuaren **generoen alderdia** izan da (**Sexuaniztasuna eta genero-nortasuna —SAGN—** deritzoguna), eta **analisirako elementu** jakin batzuk kontuan hartu eta lehenetsi ditugu.



Analisirako elementu horiez baliatuz, **hipotesi** eta **adierazle** batzuk egin ditugu, erabilitako tresnetan zer galdera egin erabakitzeko. Zehazki, tresna hauek erabili ditugu: elkarrizketak,

2. irudia

eztabaida-taldeak eta inkestak (ikus 2. irudia). Galderak egin ostean, azken ebaluazio-dokumentu bat egin dugu.

²Gure ebaluazio-proposamenari buruz gehiago jakin nahi izanez gero, jo helbide honetara: <https://iniciativasdecooperacionydesarrollo.wordpress.com/2011/03/02/sobre-evaluacion-de-procesos/>

2

Proiektuaren
berariazko
helburua,
ebaluazioaren
helburua eta
SAGN ikuspegia

2.1. Proiektuaren helburua

Proiektuaren berriazko helburuak ebaluazio-prozesua bideratu du.

Proiektuaren berriazko helburua

Giza eskubideen eta justiziaren arloko EAEko* eragileei informazio garrantzitsua ematea genero-arrazoiengatik jazarpenari buruz eta arrazoi horrengatik jazartzen dituzten pertsonen jatorriko herrialdeetako egoerari buruz.

Hainbat urtez geroztik, CEAR-Euskadik bere lanean aintzat hartzen ditu garapenerako hezkuntzaren alderdiak. Alderdi horiek INCYDE, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo³ zerbitzuak egin ditu, eta hauexek dira: alderdi pedagogikoa, alderdi kulturala, alderdi politikoa, etengabeko berrikuntzaren alderdia, Hegoaldea alderdia eta generoen alderdia (ikus 3. irudia).

2.2. Ebaluazioaren helburua

Ebaluazioaren helburua

SAGN IKUSPEGIA proiektuaren produktuetan txertatu dugun jakitea. Gauzak ikusteko beste era bat.

³ Canarias, E. eta Altamira, F.:

<https://iniciativasdecooperacionydesarrollo.wordpress.com/2012/10/30/dimensiones-que-podemos-tener-en-cuenta-en-los-procesos-educativos/>

Ebaluazio honetan, CEAR-Euskadik generoen alderdia (SAGN) hartu nahi izan du ardatz gisa. Halaber, analisirako balizko elementu guztietatik, hauetan jarri dugu arreta⁴:



3. irudia

1. Proiektuak genero-ikuspegia txertatzen du gaietan, materialetan eta baliabideetan (hizkuntza eta irudi ez-sexistak eta ez-binaristak erabiliz, sexu-nortasun ugari adieraziz...).
2. Proiektuak sexu-aniztasunaren ikuspegia txertatzen du gaietan, materialetan eta baliabideetan: hizkuntzan, erabilitako irudietan, formen ugaritasunean eta darabiltzan sexualitatea sentitzeko, bizitzeko eta gozatzeko bestelako esperientzietan....
3. Proiektuan, pertsonen eta herrien oinarrizko eskubideetat aitortzen da sexu-aniztasunerako eskubidea.

⁴ Analisisirako elementu horiek orientatzaileak dira; Nahia taldeak egin ditu, proiektu hau ebaluatzeko: "La perspectiva diversidad sexual y de identidad de género en cooperación y educación para la ciudadanía global".

2.3. Generoaren eta sexu-aniztasunaren ikuspegia, CEAR-Euskadiren arabera

Eredu neoliberalak⁵ ezartzen dizkigu bizitzeko jarraibideak, gizartearen, ekonomiaren, kulturaren eta politikaren esparruan, bai eta sexuaren eta generoaren esparruan ere. Eredu hori heteronormatibitatearen⁶ eta genero-binarismoaren bidez zertzen da. Heteronormatibitateak eta genero-binarismoak balizko modu bakar batean ikusarazten digute errealitatea, aurrez ezarritako eta definitutako jarraibide batzuei lotutako



arau baten bidez. Eredu nagusi eta menderatzailea gainditzeko, errealitateari beste modu batean begiratu behar diogu; hau da, atalen arteko azterketa sistemiko baten bidez, hainbat arlo (ekonomia, generoa, sexua, kultura, osasuna...) zer-nolako modu konplexuan gurutzatzen eta elkarri lotzen diren behatzeko aukera emango diguna.

Gaude analisi horrek lagundu egin diezagukeela hobeto ulertzen zapalkuntza- eta pribilegio-esperientziak, bai eta egiten ari diren aurre egiteko, aurka egiteko eta ereduak hausteko mekanismo pertsonal eta kolektiboak ere.

Generoaren eta sexu-aniztasunaren ikuspegia ez da mintzo "haiez", baizik eta "gutaz", gure desirez, gure maitatzeko, harremanak izateko, gozatzeko, elkarrekiko konpromisoa hartzeko moduez... Hitz batez, herritarrek ikusteko modu batez mintzo da: herritarrek eskubideak eta betebeharrak dituzte, bai eta sexuari eta generoari dagokionez ere. Ez die LGBTTI pertsonen soilik egiten erreferentzia; aitzitik, oraindik sexunortasunen bat bere egin ez duten pertsonen sexualitatea eta afektibitatea bizitzeko "beste" modu bat aukeratzeko eta imajinatzeko

⁵ Dubois, A.: "Garapena" eta "Giza eskubidea", hemen: "Garapenerako Hezkuntzaren Hiztegia" Celorio, G. eta López de Munain, A. (koord.) Argitaletxea: Hegoa. Bilbo, 2007.

⁶ Guasch, O.: "La crisis de la heterosexualidad". Argitaletxea: Laertes. Bartzelona, 2007.

duten eskubideari egiten dio erreferentzia, bai eta gainerako pertsonak askatasunez eta jakinda aukeratzeko duten eskubideari ere. Eraikitzen ditugun identitateak **askotariko gurutzatzeen emaitza dira**. Pertsona guztiok, jakinda edo jakin gabe, aukera dugu geure burua emakumetzat identifikatzeko, edo gizontzat, edo bi kategoria horietan sartzen ez den moduren batean. Orobat dugu aukera askotariko sexu-joerak hartzeko, desirari eta afektuari dagokionez, eta, gure ustez, eztabaida politikoaren bidez, bi aukera horiek sortzen dituzten bazterkeriak bidezkoak edo bidegabeak diren aztertu beharko litzateke. Hori dela eta, oso garrantzitsua da **askotariko nortasunak** babestea eta legezkotzat jotzea; izan ere, bide ematen diete pertsonari hainbat talderen kide izateko, joera afektiboetatik eta sexualetatik eta genero-nortasunetik harago. Sexuari/generoari buruzko ikuspegi berriek aukera gehiago eta handiagoak ematen dituzte proposamen eta aliantza jakin batzuk eraikitzeko, leku egingo dietenak banakako eta taldeko emantzipazioaren bestelako erreferente batzuk sortzen parte hartu nahi duten mota ezberdinetako pertsona gehiagori.

Gure ustez, generoaren eta sexu-aniztasunaren ikuspegia gure gizarteetan batera existitzen diren sexualitateen eta genero-nortasunen berri izateko eta horiek ebaluatzeko tresna analitiko baliagarria da, baina, batik bat, **errealitate horiek aldatzeko proposamen politiko bat da**. Garapenerako hezkuntzak (GH) nagusi den eredu neoliberalaren aurkako erresistentziak sortzea nahi dugu, eta bestelako ekintza eta proposamen batzuk imajinatzeko eta gauzatzeko bide ematea. Horregatik, generoaren eta sexu-aniztasunaren ikuspegiak zabaldu egiten ditu aukerak eta ekintza-arloak, eta bide ematen digu beste subjektu politiko batzuekin jarduteko.

Gure ustez, GH politikak egiteko, ezinbestekoa da politika horietan pertsonen sexuaren alderdia txertatzea, hainbeste bidegabekeria eragiten dituzten beste alderdi batzuk txertatu diren bezalaxe (generoa, kultura, gizarte-klasea, azalaren kolorea, nazioa, etnia...). Ikuspegi horrek oso zalantzan jartzen du bi sexu eta bi genero soilik daudela dioen logika binarioa; logika horretan, femeninoa maskulinoari kontrajartzen zaio, eta emakumea gizonari. Sexu/genero binarismoa zalantzan jartzeak bide ematen digu sexualitatea ikusarazteko modu asko eta "gizon izateko" eta "emakume izateko" edo "ez gizona ez emakumea" izateko modu asko ikusteko, eta hori, gure ustez, gehiago dator bat gizakiaren errealitate konplexuarekin. **Erronka handia dugu:** praktikan, sexuaren/generoaren logika binarioaren aurkako kritika hori uztartu behar dugu emakumeek, lesbianek gayek, transgeneroek eta, oro har, binarismo heteronormatiboaren kanonetan sartzen ez diren pertsona guztiek pairatzen dituzten diskriminazioak ikusezin ez bihurtzearen premiarekin.

Esparru teoriko bat behar dugu, sexuak eta generoak beste modu batera ulertzeko, ez gaur egun bezala —edonola ere, ez dugu baztertu behar urte askoan praktikan eta diskurtsoan balio izan diguna—, bai eta “emakumeak eta gizonak” deritzon unibertsoaren aniztasuna ulertzeko eta ikusarazteko, eta berariazko mendekotasun- eta marjinazio-motak sortzen dituzten zapalkuntza- eta diskriminazio-sistemak antolatzeke ere, sistema horiek antolatzea zaila izango bada ere. **Gure erroak** generoaren teoriak eta teoria feministak dira. Ez ditugu nahi ukatu erro horiek; osatu eta aberastu egin nahi ditugu, ezarritako “gizon-emakume” erlazio binarioetatik harago jotzeko aukera emango diguten ikuspegi are konplexu, erreal eta integratzaileagoekin. Esparru horrek bide emango digu nork bere burua beste modu batera imajinatzeke, bai eta bestelako desira eta gozamen forma batzuk eraikitzeke eta aukeratzeko ere. Eragile aktiboak izango gara, eta gure sexu- eta genero-aukerak eraiki, berreraiki eta birstortu ahalko ditugu. Halaber, aurrerabideak proposatu ahalko ditugu, egiten ari garena apur bat konplexuago bilakatzeko eta askeago izaten lagunduko diguten hausnarketa- eta ekintza-ildoak proposatzeko.

Iparraldean bizi diren Hegoaldeko pertsonekin eta Hegoaldeko herrialdeetan egiten dugun lanaren bidez, badakigu pertsona batzuek bazterkeria, jazarpena, tortura eta heriotza pairatzen dutela beren sexu-aukera jendaurrean erakusteagatik, beren desira ez-normatiboak askatasunez bizitzen saiatzeagatik. Gero eta pertsona gehiagok egin behar dute ihes beren herrialdetik, etorkin gisa edo asilo-eskatzaile gisa. Ezinbestekoa da arreta berezia ematea pertsona kalteberenei, historikoki jazarriak izan diren kolektiboari, hala nola LGBTTI kolektiboari. Arestian esan dugun bezala, ez dugu esan nahi generoaren eta sexu-aniztasunaren ikuspegiak kolektibo horiekin soilik duela lotura; izan ere, gure ustez, denoi eragiten digu, eta denoi dagokigu.

Gure ikuspuntutik, erronka bat da; izan ere, kontuan hartuta pertsona eta komunitate jakin batzuekin egiten dugula lan, beste aukera eta modu batzuk ematen dizkigu pertsona horiengana eta komunitate horietara gerturatzeko, hala nola bestelako galdera batzuen bidez eta beste eragile batzuk identifikatuz, lankidetzan jarduteko eta laguntzeko. Betiere kultura- eta gizarte-inguruneak errespetatuz, mendebaldeko irizpideak eta irizpide etnozentrakoak ezarri gabe, eta **sexu-etika plurala** oinarri hartuta. Gayle Rubin-en hitzak jasoko ditugu hemen, auzi etikora gerturatzeko: *“Moraltasun demokratikoak honen arabera epaitu beharko lituzke sexu-harremanak: nola tratatzen diren maitasun-harremanean parte hartzen duten pertsonak, zenbateko errespetua dioten elkarri, ea hertsadurarik badagoen ala ez, eta zenbat eta zernolako gozamena ematen duen. Sexu-harremanak heteroak edo homosexualak, biluziak edo jantziak, biren edo hiruren artekoak eta abar izateak ez luke zertan kezka etikorik sortu”*.

3

Ebaluatu beharreko ekintzak

1. "Beldurrik gabe bizi. Asiloaren babesa, genero-arrazoiengatiko jazarpenaren aurrean" argitalpena.
2. Gida elektronikoa, jatorriko herrialdearen informazioari buruzkoa.
3. Barne-lantegia. Eragin politikoa izateko estrategiak. Sexu-esplotaziorako salerosketaren biktima diren emakumeen babesa.
4. Genero-arrazoiengatiko jazarpenari eta asilo-eskubideari buruzko II. Biltzarra. Salerosketa, sexu-esplotazioa, mugak.

4

24 puntu
etorkizunari
begira

Landutako edukiak abiapuntutzat hartuta, 5 bloketan antolatutako 24 puntu egin ditugu, eta, puntu horietan, etorkizunari begira hobetzeko proposamenak jaso ditugu. Badakigu puntu horiek agian ez direla garrantzitsuenak eta badaudela beste puntu batzuk. CEAR-Euskadiren eztabaida bideratzea besterik ez dugu nahi, ebaluazio honen edukiak behar bezala zertzeko, proiektu berrietan aldaketak egiteko bide emango duen etorkizunera begirako ikuspegi batekin.

24 puntu etorkizunera begira, 5 bloketan:

- Esparru kontzeptuala
- Metodoa
- Ekintzak
- Eragina
- Biktimen parte-hartzea

Esparru kontzeptuala

1. CEAR-Euskadik aurrerapauso bat eman du, eztabaida hori sartu baitu gizarte-elkarteetan, erakunde publikoetan eta arlo juridikoan. Garrantzitsua da etorkizunean beste aurrerapauso batzuk proposatzea, bai eta sakontasun handiagoz proposatzea ere.
2. Baliteke eztabaida hori konplexuagoa bilakatzea etorkizunean, elkarteak, estrategia gisa, poliki-poliki erakutsiko badu ere, proiektuan inplikaturako pertsonak erraz uler dezaten. Edonola ere, CEAR-Euskadik erabaki behar du ea GAJen lan-ildo hori lantzen jarraitu nahi duen eta ea lehentasunezkoa den bere proiektuetan sexu-aniztasuna eta genero-nortasunak txertatzea.
3. Gai hori garrantzitsua bada etorkizunean egingo dituzten proiektuetan, komenigarria izango da CEAR-Euskadiko lantaldeko kideek prestakuntza jasotzea eta gai horiei buruz hausnartzea, kontzeptuak bereganatzeko eta argudiatzerakoan irizpide gehiago izateko.
4. Gure ikuspuntutik, aurrerapauso bat izan da heteronormatibitatearen kontzeptua txertatzea egoera bidegabe horiek sortzen dituen esparru ideologiko gisa; pentsamoldea, eredu ideologikoa eta ekintza menderatzailearen eredu. Hainbat egilek aipatzen dutenez, heteronormatibitatea botere-harreman asimetrikoetan oinarritzen da, eta, harreman horietan, sexualitatea, arraza, generoa eta klase soziala elkarri lotuta daude. Eta harreman horiek baldintzatu egiten dituzte gorputzak eta komunitateak, eta horietan eragina dute⁷.
5. Agian, denbora falta dela eta, ekintzetako batzuetan ez da sakon landu heteronormatibitatea jazarpen horiek sortzen dituen arrazoi gisa. Gure ustez, oso garrantzitsua da heteronormatibitatea mahaigaineratzea, bide ematen baitu eztabaida egiteko landu diren GAJ esperientziei buruz, hala nola salerosketaren biktima diren emakumeen eta LGTTBI pertsonen esperientziei buruz. Badakigu jazarpen horietan lotura hori dagoela, nahiz eta itxuraz egoera ezberdinak direla iruditu. Esparru horrek, gure ikuspuntutik, koherentzia ematen dio analisiari, bai eta abiarazi beharreko ekintzei ere. Alde horretatik, proiektuak aurrera egin du apur bat; gertatzen ari denaren arrazoiak ulertzen laguntzen digu, eta bide-erakusle izango da etorkizunean egiten diren proiektuetarako. Ildo horretan aurrera egiteko, ezinbestekoa da ahalegina egitea eta baliabideak izatea,

⁷ Foucault, M.: "Historia de la sexualidad. 1 La voluntad de saber" Argitaletxea: Siglo XXI. Madril, 1998.

Butler, J.: "Cuerpos que importan. Sobre los límites materiales y discursivos del sexo". Argitaletxea: Paidós. Buenos Aires, 2002.

eta CEAR-Euskadik ikusi beharko du ea horrek bere lanean lehentasuna duen edo salerosketaren errealitatean eta GAJean soilik sakontzen jarraituko duen.

6. Ebaluazioan parte hartu duten pertsonen ekarpenak ikusirik, badirudi proiektuaren ekintza guztietan jarri direla agerian estatuek egiten dituzten jazarpenak. Dena den, badirudi gizarte-jazarpenak ez direla modu berean eta intentsitate berarekin agerian jarri. Agian, CEAR-Euskadik arlo juridikoan eragina izan nahi duenez, garrantzi handiagoa eman zaie estatuen jazarpenei. Edo agian errazagoa da mota horretako informazioa eskuratzea. Komeni da elkarteak sakon aztertzea arrazoiak zein diren; izan ere, egiten duen lanean beharrezkoa da gizarte-jazarpenetan ere sakontzea, eta, horrenbestez, alderdi hori ere landu beharko luke. Esaterako, harremanetan jarri tokiko elkarteekin, elkarte horiek ezinbesteko informazio-iturri baitira eta etorkizuneko proiektuak bideratzen lagunduko baitiote.
7. Orobat mahaigaineratu dezakegu beste kontu bat; alegia, CEAR-Euskadik duen erronka, LGTTBI pertsonak kolektibo homogeneousat hartzen dituen diskurtso gailena ez errepikatzeko. Bat gatoz Gerard Coll-Planasek dioenarekin: “(...) botereak gaitu egiten gaitu, eta, aldi berean, mendean jartzen. Horrenbestez, nortasun-kategoriek gaitzearen/mendean jartzearen balio bikoitz hori dute (...)”⁸. Batetik, kategoriek norberaren eta besteen konplexutasuna ulertzeko balio digute, baldin eta kontuan hartzen badugu ez direla monolitikoak —aldatu egin baitaitezke— eta ez direla inola ere giza aniztasunaren erakusgarri. Bestalde, kategoriek geure burua subjektu politiko gisa antolatzen ere laguntzen digute.

Metodoa

8. Proiektuan, ikuspegi eta gai berriez gain, oso metodozko elementu interesgarri bat txertatu da; izan ere, ebaluazioa SAGN ikuspegiaren oinarritutako generoen alderdiaren bidez egitea planteatu da. Horri esker, kontuan hartu beharreko beste adierazle eta analisirako elementu batzuk identifikatu ditugu. Proiektuan, beharrezkoa izan da proiekturako ebaluazio-irizpide baliagarriak asmatzea eta diseinatzea. Irizpide horiek orientatzaileak izango dira beste proiektu batzuetarako. Orain, irizpide horietan sakontzen jarraitu behar dugu, berritzeko eta hobetzeko.

⁸ Coll-Planas, G.: “La voluntad y el deseo. La construcción social del género y la sexualidad: el caso de lesbianas, gays y trans”. Argitaletxea: Egales. Madril, 2010.

Ekintzak

9. Ebaluazio-prozesuan parte hartu duten pertsonak adierazi dutenez, SAGN ikuspegia proiektuaren esparru teorikoan txertatu bada ere, beharrezkoa da are sakonago aztertzea ekintza zehatzetan nola txertatu. Biziki balioesten dugu profil normatiboetatik kanpo dauden pertsonen lekukotzak txertatu izana, lekukotza horien presentzia funtsezkoa izan baita proiektuan. Gaude CEAR-Euskadik alderdi hori aztertzen jarraitu nahi duela, dauden zailtasunak gorabehera; izan ere, ez dago aurrekari askorik gai horri buruz.
10. Gaur egungo gertaerak kontuan hartuta, CEAR-Euskadik malgutasun handiz jokatu du salerosketaren gaiari heldu dionean proiektuan. Horretaz gainera, gai hori aurreko proiektu batzuetan hasitako lanaren jarraipena da, eta horrek bide eman du kontzeptuetan, arrazoietan eta dauden aukera praktikoetan sakontzeko. Edonola ere, bat gatoz ebaluazioan parte hartu duten pertsona batzuekin; zehazki, pertsona horiek adierazi dutenez, liburuan lantzen diren gaien eta proiektuaren gainerako ekintzen artean eten bat dago. Liburuan, SAGN ikuspegiari garrantzi handia ematen zaio; ez, ordea, gainerako ekintzetan. Ikuspegi hori gainerako ekintzetan txertatzeak bide emango zukeen edukiak eta ekintza-estrategiak osatzeko. Gure ikuspuntutik, liburua baliabide garrantzitsu eta berria da, eta jarraipena eman beharko zitzaiokeen beste ekintzetan.
11. Agian are lotura estuagoa egin beharko zatekeen salerosketaren eta LGTTBI pertsonak pairatzen duten jazarpenaren artean, biek eredu normatiboarekin zer-nolako lotura duten erakusteko eta errealitate ezberdinak izango balira bezala ez erakusteko. Ziur asko, bi gai horiek horrela landu dira; hain zuzen ere, elkarri lotuta egon arren, arlo juridikoan bereizirik tratatzen direlako, tresna ezberdinak erabiltzen baitira bakoitzari heltzeko.
12. Gure ustez, ekintzen artean, liburuak erakutsi ditu argien LGTTBI pertsonak pairatzen dituzten gizarte-jazarpenak, biktimen lekukotzen bidez. Onuragarria izango litzateke CEAR-Euskadik beste ekintza batzuetan txertatzea jazarpen horiek, pertsona horiek bizi dituzten testuinguruetan sakontzen jarraitzeko eta egin beharreko estrategiak hobeto identifikatzeko. Horretaz gainera, gizarte-jazarpenetan sakonduz gero, esperientzia pertsonalak objektiba daitezke, eta biktimei laguntzeko elementu berriak egin.
13. LGTTBI pertsonak asilo-prozeduran sartzeko dituzten zailtasunak aipatzen ditu liburuak. Gainerako ekintzetan, ebaluazioan parte hartu dutenek adierazi dutenez, ez zaio gai horri heldu. Gure ikuspuntutik,

badirudi CEAR-Euskadik aurrerapauso garrantzitsua eman duela LGTTBI eta GAJ elkarri lotuz —lehenengo aldia da hori egiten duela—. Elkarrekin erabaki beharko du ea etorkizunean kolektibo horri lehentasuna emango dion bere lanetan. Gai horietan sakontzen jarraitzea eta proiektuetako ekintzetan kontuan hartzea erabakitzen badu, ekarpen handia egin dezake biktimen ekintzaitza-ahalmena eta erresilientzia sendotzeko. Hori lagungarria izango da, besteak beste, egoera bidegabeen “sufritzaile” besterik ez diren pertsona pasibo direlako estereotipoa hausteko.

Eragina

14. Gure ikuspuntutik, proiektuak, oro har, eta liburuak, bereziki, ekarpen garrantzitsua egiten die beste elkarte batzuei, LGTTBI kolektiboaren beren ekintzetan, hizkuntzan eta komunikatzeko moduetan nola txertatu jakiteko.
15. Agian LGTTBI eskubideen arloan espezifikoki lan egiten duten elkarteek aspalditik txertatu dute ikuspegi hori beren lanean. Dena den, beste elkarte batzuek, bai eta arlo juridikoak ere, beren lanean txerta ditzaketan gako berri batzuk aurkituko dituzte liburuan.
16. Gure ustez, babesa eta asiloa ez dira biktimei erreparazioa emateko modu bakarrak, ez eta behar adinakoak ere. Baina gogoratu beharra dago proiektuak arlo juridikoan eragina izatea duela helburu.
17. Ebaluazioan parte hartu duen pertsonetako batek adierazi duenez, beren jatorriko herrialdeetako elkarteetan parte hartzen duten LGTTBI biktimen kasu gutxi erakutsi dira. Gure ikuspuntutik, erakutsitako kasu guztietan, laguntza-sareak bilatzen dituzten pertsona gisa aurkeztu dira biktimak, sare horiek tokiko gizarte-elkarrekin ez badira ere. Alde horretatik, gure ustez, kontuan hartu beharra dago pertsona batzuk ez direla izan ezein elkarte kide beren jatorriko herrialdean, interesik ez dutelako izan edo beren segurtasunerako mehatxu bat izan delako. Gure ustez, CEAR-Euskadik, GAJ pairatzen duten LGTTBI pertsonen lagundu nahi badie, erronka handia du aurrez aurre; izan ere, ikusi egin beharko du nola antolatu bestelako sare batzuk harrera-herrialdean jazarpenari aurre egiteko eta nola egin loturak jatorriko herrialdeko elkarteekin. Baliteke horrek elkartearen lan-eremua gaitzitzea; hala eta guztiz ere, arrazoiengan, ondorioengan eta eskura dauden aurre egiteko mekanismoetan sakontzeko modu bat izan daiteke.

18. Orobat da aipatzekoa proiektuak bide eman digula gure inguruko pertsona eta elkarte batzuekin harremanetan jartzeko; hain zuzen ere, LGTTBI pertsonak pairatzen duten jazarpenean interesa duten pertsona eta elkarte batzuekin. CEAR-Euskadik lan hori egiten jarraitu nahi badu, etorkizunari begira aliantzak egin ahalko ditu pertsona eta elkarte horiekin.
19. Horretaz gainera, ebaluazioan parte hartu duten pertsona batzuek aipatu dutenez, proiektuari esker, elkarteko beste pertsona eta esku hartzeko talde batzuk inplikatu dira. Horrek bide eman dezake LGTTBI kolektiboa sartzeko elkarte osoak egiten duen lanean. Beste talde batzuk inplikatzeko erronka bat izan ohi da gizarte-elkarteentzat, gehiago egoten baitira kanpora begira barrura begira baino.
20. Proiektuan, LGTTBI pertsonak GAJekin eta eredu heteronormatiboarekin lotzen dira, eta horrek erronkak dakartzio pertsona orori, oro har, eta arlo juridikoari, bereziki. Zalantzarik gabe, badaude lege eta arau batzuk, eredu gailena sendotzeko eginak. Hala ere, ziur gaude GAJ pairatzen duten LGTTBI pertsonari laguntza eta babesa emateko erabil daitekeela esparru juridikoa. Eta proiektu honek aurrerapausoak eman ditu norabide horretan.

Biktimen parte-hartzea

21. Badirudi LGTTBI pertsonen presentziak garrantzi handia izan duela liburuan eta garrantzi gutxi gainerako ekintzetan. Edonola ere, garrantzitsua iruditzen zaigu CEAR-Euskadik liburu hori argitaratzeko eman duen pausoa, liburu hori argitaratzea beharrezkoa baitzen. Bertan jasotzen diren lekukotzat funtsezkoak dira beste bizimodu batzuen berri izateko eta planeta honetako pertsona asko zer ari diren bizitzen beren ahotik jakiteko.
22. Edonola ere, gure ikuspuntutik, beste pauso batzuk iradoki nahi ditugu, harago joan gaitezke eta. Pertsona horiek, beren lekukotzen bidez, arrasto eta norabide batzuk eman dizkigute. Baina CEAR-Euskadik sar al ditzake pertsona horiek teoria berri bat eta irakaspen berriak egiteko prozesuan? Horrek erronka bat dakar berekin: biktimek teoriak egiten parte hartzea. Erronka da hiru talderen artean egitea teoriak eta sortzea ezagutzak; hau da, akademiako pertsonen, CEAR-Euskadiko pertsonen eta biktimen artean. Agian bertan behera utzi behar da ideia bat; alegia, biktimek bizi izan dutenaz hitz egiten digutela eta adituek diskurtso bat sortzen dutela, lekukotzetatik egoki iruditzen zaizkien zatiak kontuan hartuz. Horren arriskua da teoria modu asimetrikoan sortzea, nahiz eta hori nahi ez izan. Agian denbora, ahalegina eta aparteko antolaketa-

baliabideak beharko dira norabide horretan aurrera egiteko. Edonola ere, CEAR-Euskadik, auzi horretan sakondu nahi badu, auzi hori praktikan jartzeko tresnak eta trebetasunak bereganatu beharko ditu.

23. Alde horretatik, aipatzekoa da liburuan beren lekukotza eman duten pertsonetako batek egin dituen ekarpenak. Pertsona horrek esan duenez, zer eduki argitaratu erabakitzeke ahalmen handiagoa izan nahiko zukeen. Pertsona horren ikuspuntua erronka bat da CEAR-Euskadirentzat, biktimek proiektuetan duten parte-hartzeari eta erabaki-ahalmenari dagokionez: Nori erabakitzen du? Zer irazki erabiliko dugu? Biktimek edukiak eman eta elkarteko adituek landu, proiektuaren helburuarekin eta lanerako dugun esparru teorikoarekin modu koherentean? Noraino iritsi nahi du CEAR-Euskadik? Noraino iritsi daiteke CEAR-Euskadi? Taldeak ba al du gauzak beste era batera egiteko modurik?

24. Amaitzeko, aipatu nahi dugu ebaluazioan partaide batek hausnarketa bat egin duela proiektuan parte hartu duen pertsona transexualari buruz. Bat gatoz egile batzuen ideia batekin; alegia, transexualitateak argi eta garbi jartzen duela zalantzan eredu heteronormatiboa, itxurazko estereotipo batzuen bidez bada ere. Historikoki, transexualitatea garapenerako hezkuntzaren prozesuetatik kanpo gelditu izan da; ezagutzen ez dugun errealitate bat da, eta erronka bat gure bizitzetarako eta proiektuetarako. Haien errealitate pertsonalei eta kolektiboari buruz gehiago jakitea da gure erronketako bat. Erronka horri helduz gero, hobeto bideratu ahalko dugu egin nahi dugun lana, bai eta gure proiektuek zer eginkizun izatea nahi dugun ere.